



Etika Publikorako Batzordea

Comisión de Ética Pública

**EUSKO JAURLARITZAKO
ETIKA PUBLIKORAKO
BATZORDEAREN
MEMORIA**

2021-2022

SARRERA. AURRETIAZKO OHARPENA 2021EKO ETA 2022KO MEMORIEI BURUZ

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an hasieran onartutako Etika eta Jokabide Kodeak (EJK), gaur egun 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota dagoenak, ezartzen du Etika Publikorako Batzordeak txosten bat egingo duela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren sektore publikoko kargu publikodunek Etika eta Jokabide Kodea betetzen dutela egiaztatzeko. Txostenak gomendioak jaso ahal izango ditu, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio. Txostenean jasotako ondorio eta gomendioak publikoak izango dira.

Eusko Jaurlaritzako EPB-Etika Publikorako Batzordeak 2021 eta 2022 urteetan zehar egindako lana erregistratzea da memoria honen xedea, Gobernu Kontseiluari ezagutzera eman eta ondoren haren zabalkunde publikoa egiteko.

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAREN OSAERARI BURUZKO BERRITASUNAK

2020ko hauteskunde autonomikoen osteko gobernu-aldaketak berekin ekarri zuen EPBren eraketa berri bat, hura osatzen duten kargu publikodunei dagokienez; zehazki, batzordeburuari eta funtzio publikoaren arloan eskumena duen sailburuordetzako titular gisa batzordekide denari dagokienez.

2020ko abenduaren 22an, Etika Publikorako Batzordeko idazkari berria izendatu zen, eta, antolaketa-arrazoiengatik, beste idazkari batek ordezkatu zuen, Gobernu Kontseiluaren 2021eko otsailaren 9ko Erabakiaren bidez.

Kargu publikodunen osaera aldatu ondoren, eta egokitzeko denbora igaro eta eredugarritzat jotako trantsizioa bermatu ostean, EPBko presidenteari idazki bat bidali zioten Gobernu Kontseiluak EPBrako izendatu zituen bi adituek, Elisa Pérez eta Txetxu Ausín (erakundeen etikarekin, eskubidearekin edo gobernantzarekin zerikusia duten gaietan esperientzia, gaitasun eta ospe profesionala izateagatik izendatu zituzten). Idazki horretan adierazi zuten beharrezkotzat jotzen zutela Batzordeari beste bultzada bat ematea, eta berritzea planteatu zuten, haien ordezkioak izendatu arte lanean jarraitzea eskaintzearekin batera.

Gobernu Kontseiluaren 2021eko urtarrilaren 25eko Erabakiaren bidez, Elsa González Esteban eta Fernando Tapia Alberdi izendatu ziren, aipatutako gaietan duten esperientziagatik eta gaitasun profesionalagatik, aurretik izendatutako bi pertsonak ordezkatzeko.

Aldaketa horien ondoren, honako hauek osatzen dute Etika Publikorako Batzordea:

- **Batzordeburua:** Olatz Garamendi Landa (Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua 2020ko irailaren 8tik aurrera)
- **Batzordekidea:** José María Armentia Macazaga (Funtzio Publikoko sailburuordea 2020ko urriaren 10etik aurrera)
- **Batzordekidea:** Elsa González Esteban (Gobernu Kontseiluaren 2021eko urtarrilaren 25eko Erabakiaren bidez batzordekide izendatua).
- **Batzordekidea:** Fernando Tapia Alberdi (Gobernu Kontseiluaren 2021eko urtarrilaren 25eko Erabakiaren bidez batzordekide izendatua).
- **Idazkaria:** Jon Urbina García de Vicuña (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria, EPBko idazkari izendatua 2021eko otsailaren 9an)

Indarrean dagoen Etika eta Jokabide Kodearen testuak ez du aldaketarik izan 2021ean eta 2022an.

MEMORIAK AINTZAT HARTZEN DUEN ALDIAN AZTERTU ETA EBATZITAKO GAIAK

2021ean eta 2022an, EPBk 15 erabaki hartu zituen: zazpi 2021ean eta zortzi 2022an. Aipatutako hamabost erabakietatik 4k salaketak eragin zituzten, eta gainerakoek, 11k, kargudun publiko batek egindako kontsultak.

Urteka banakatuta eta grafikoki adierazita, eman berri dugun informazioa honako taula honetan laburbil daiteke:

2021. URTEA	
Salaketa edo kexa	2
Kontsulta	5
Guztira	7

2022. URTEA	
Salaketa edo kexa	2
Kontsulta	6
Guztira	8

2021. eta 2022. urteen laburpen-taula honako hau izango litzateke:

2021. eta 2022. URTEAK	
Salaketa edo kexa	4
Kontsulta	11

Guztira	15
----------------	-----------

Hartutako erabakien kopuruari dagokienez, nabarmentzekoa da kontsulten ehunekoa oso handia dela salaketen edo kexen aldean; zehazki, memoria honetan aipatzen diren urteetan, kontsultak dira EPBra iritsi diren gaien % 73,33, eta salaketak edo kexak, berriz, % 26,66.

Joera hori errepikatu egiten da 2013an Etika Publikorako Batzordea lanean hasi zenetik, eta horrek erakusten du kargu publikodunek benetako kezka dutela Etika eta Jokabide Kodean ezarritakoa betetzeko.

EPBri helarazi zaizkion gaien inguruko beste alderdi aipagarri bat da, berriz ere, ikertu gisa judizialki deklaratzera deitutako kargu publikodunei buruzko kontsulta kopuru handia (7), zehazki, EPBk bi urte horietan aztertu dituenen % 46,66.

EPBk 2021-2022 urteetan hartutako erabakien alderdirik aipagarrienak honako hauek dira:

a) Ikertu gisa judizialki deklaratzera deitutako kargu publikodunei buruz.

EPBk bi urte horietan aztertutako hamabost kasuetatik zazpi ikertu gisa deklaratzeko zitazio judizialekin lotuta zeuden. Batzordeak ebatzitako 4, 5, 6 eta 7/2021 eta 2, 3 eta 7/2022 erabakiei dagozkie.

Etika eta Jokabide Kodeak 15.d) apartatuan ezartzen du kargu publikodunek Batzordeari jakinarazi behar dizkiotela prozedura judizial penal baten barruan ikertu gisa deklaratzeko jasotzen dituzten zitazioak.

2019. urtean, zehazki 3/2019 Erabakian, Batzordeak osagai berri batekin egin zuen topo, hain zuzen ere ikertu gisa deklaratzeko deia ez zetorrelako instrukzio-epaitegi batetik, baizik eta fiskaltzak abian jarritako ikerketa-eginbide batzuetatik.

EPBren ustez, nahiz eta zalantzazkoa izan fiskaltzak sustatutako ikerketa bat (eta, beraz, dagokion instrukzio-epaitegiaren esku-hartzearen aurrekoa) berez prozesu penal baten barruan kokatzea, analogia bat zegoela ulertu zuen (arrazoi-antzekotasuna), eta eredugarritasun-printzipioan oinarrituta, 15.d) apartatuko betebeharra kasu horietara zabaltzea erabaki zuen.

EPBk 2021ean eta 2022an aztertutako kasuetan guztietan, ikertu gisa judizialki deklaratzeko zitazioak instrukzio-epaitegitik etorri ziren.

Ildo horretan, EPBk badu doktrina finkatua kasu horietan: *«kontuan hartu behar da oinarrizko zer hiru aukera dauden aurreko puntuetan, erabakitzeko, berariaz, prozedura penalen edo zehapen-prozedura administratiboen izapidetzearen zer unetan den bateraezina eredugarritasun-printzipioa kargu publiko bat betetzearekin, baldin eta*

karguduna ikertua izaten ari baldin bada –lehen aukerak inputazioaren unea dela adierazten du, bigarrenak ahozko judizioa abiarazten den unea dela, eta, hirugarren aukerak, berriz, kondena-sententzia edo zehapen-ebazpena ematen den unea dela–, eta, hasiera batean eta irizpidea kasu jakin bakoitzera moldatzeko premia ekar dezaketen egoera puntualak alde batera utzita, badirudi bigarren aukeraren alde egitea dela bidezkoa, hura baita hobekien eta proportzioa egokien zainduz bateratzen dituen eredugarritasun publikoaren eskakizunak eta herritarren eskubideei eta bermeei izan behar zaien begirunea. Eta hori guztia egin beharko litzateke, noski, argi eta garbi utzita ez litzatekeela izango aurreratutako kondena bat, ez eta gerora etorriko den kondena baten aurrerapena ere, kargu publikodun bat badaezpada ere kargutik kentzea, baldin eta horrelakorik egin beharko balitz auzitegi eskudunak ahozko judizioa irekitzea erabakitzen duen autoa eman duelako karguduna auzipetuta dagoen prozedura penal batean, baizik eta prebentziozko neurri profilaktiko soil bat izango litzateke, eredugarritasunaren balioari indar emateko erabakitakoa eta pertsona horrek zerbitzuan diharduen erakundearen irudi ona aldi baterako zaintzeko hartutakoa; hori horrela, EJKk 15. apartatuko 5. puntuan adierazten duena kontuan hartuta, prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikodunak ez duela erantzukizunik, berriro emango zaio kargua edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da».

Horregatik guztiagatik, EPBk aztertutako kasu guztietan, ondorioztatzen du kargu publikodunak karguan jarraitu dezakeela, harik eta epaile edo auzitegi eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen duen autoa ematen duen arte, eta interesdunak instrukzio-epaitegiarekin lankidetzan jarraitu behar duela, egiten zaizkion errekerimendu guztiei unean-unean erantzunez.

Gaur-gaurkoz, EPBk dakienagatik, aztertutako kasu bakar batean ere ez da ahozko judizioa ireki.

b) EJKren aplikazio-eremu subjektiboa.

Batzordean planteatu den beste gai bat Etika eta Jokabide Kodearen aplikazio-eremu subjektiboa da (1/2021 Erabakia).

Gai hori behin eta berriz errepikatzen da EPBn, eta Batzordeak hainbat aldiz eman du bere iritzia.

Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkide batek egindako kontsulta bat da, gobernu-ardurak utzi eta enpresa pribatuetan lanean hasi ziren zenbait goikargudun ohiri buruzkoa.

Alde horretatik, EPBk badu doktrina argi bat EJKren aplikazio subjektiboari dagokionez; izan ere, askotan adierazi duen bezala, Etika eta Jokabide Kodeak agintzen duena mugaturik dago aldi batera eta gai batzuetara. Onartu zenetik daude definiturik muga horiek (Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Erabaki bidez onartu zen), eta, gerora ere, ekainaren 26ko 1/2014 Legea onartu zenean, muga horiek ez ziren aldatu (kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen ditu lege horrek).

Horrenbestez, 2. artikuluan zehazturik dauden kargu publikodunek bakarrik daukate Kodea bete beharra, betiere ofizialki izendatuta geratu ondoren, eta, «banakako atxikipenaren» bidez, hitzeman ondoren beteko dutela han agintzen zaiena. Etika eta Jokabide Kodearen testu bategineko 18. artikuluan dator atxikipen hori; 2016ko azaroaren 28an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ilido horretan, EJK-k aipatutako arauan izendatzen diren eta kodearekiko atxikipena aurkeztu duten pertsonak baino ez ditu behartzen. Beraz, bere aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira batzorde honek ebazteko eskumenik ez duen dilema etikoren bat sor dezaketen gainerako langileak, funtzionarioak edo bestelakoak.

Bestalde, denboraren ikuspegitik, EJKn jasotako balioak, printzipioak eta jokabideak lehen aipatutako kargu publikodunei aplikatuko zaizkie, kargu publikodun horiek legez ezarritako prozeduraren arabera izendatu diren eta Kodearekiko atxikipena formalizatu duten unetik aurrera, eta kargu-eginkizunetan jarraitzen duten bitartean. Horrela, haren ondorioen denbora-muga zehazte aldera, Kodearekiko atxikipena elementu erabakigarria da hasierako unea finkatzeko; aldiz, «EJKren indar loteslea desagertu egiten da arau propioak dituen kargu publikodunak kargu publiko hori betetzeari uzten dionean legez ezarritako prozedura betez; hau da, eskumena duen organoak kargua uzteko erabakia hartzen duenean eta

kargu-uzte hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzen denean».

Etika Publikorako Batzordeak, ordena etikoaren eremura mugatu nahi izan du bere lana lehenengo ebazpenak eman zituenetik, eta, soil-soilik, EJKrekiko borondatezko atxikipena formalizatu duten kargu publikodunek eta parekatuek EJK betetzen duten ala ez erabakitzen. Ordenamendu juridikoaren betetze hori ez da batere hutsala; nolana ere, ez da Batzordearen eginkizunetako bat administrazio-jarduera baten legezkotasunari buruzko iritziak ematea edo, hala badagokio, goikargudunen jokabidearen zuzentasun juridikoari buruzkoak.

Ekainaren 26ko 1/2014 Legeak (Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituenak) II. kapituluari jaso zituen Eusko Jaurlaritzako kargu publikodunen eta parekatuen jardunean bete beharreko printzipioak eta balioak.

Lege-testu hori azaletik aztertuz gero, ikus daiteke bateragarritasun-baimenak eta horien inguruabarren kudeaketa eta kontrola Etika Publikorako Batzordekoak ez diren organoen esku uzten dituela. Horrela, aipatutako Legeak eta, modu zabalagoan, hura garatzeko Dekretuak – azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuak, kargu publikodunen betebeharrei eta eskubideei buruzkoak–, bateragarritasun-prozedura bat ezartzen dute deskribatzen diren egoeretarako.

Prozedura horretan ez da ezartzen EPBren esku-hartzea ezein fasetan. Izan ere, Batzordearen jardueraren helburua ez da kudeaketa administratiboa oztopatzea, baizik eta, gerora, hura legegileak eta Eusko Jaurlaritzak aldarrikatutako printzipio eta balio etikoetara egokitzen den ebaluatzea.

Batzordeak ezin du bere gain hartu elementuak epaitu eta baloratzeko eginkizunik, legeak, bere eremu subjektibotik kanpo, beste organo espezifikoko eta zehatz batzuen esku uzten duenik.

Hala, EPBk, adierazitako irizpideari jarraikiz, bertan aipatutako pertsonetako bati buruz aurkeztutako kontsulta ez onartzea erabaki zuen, ez zelako EJKren agindupeko kargu publikoduna.

Kontsultan aipatutako beste bi pertsonen dagokienez, aurkeztutako kontsulta kontuan ez hartzea eta artxibatzea erabaki zen, pertsona horiek EJKren zehaztapenen mendeko kargu publikodunak ez zirenean gertatutakoari buruzkoa baitzen.

Nolanahi ere, Erabakian gomendio hau jasotzen da: izendapen askeen kargu-uzteari buruzko aipamenean bat jasotzeko aukera aztertzea kargu publikodunen kargu-uzte dekretuetan, hala dagokionean, betiere izendapen horiek kargu publikoa izateagatik bakarrik egiten badira.

c) Erabakia, unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako ordezkapenen zerrendetatik espezialitate jakin batzuk baztertzeari buruzkoa.

Pertsona batek salaketa bat aurkeztu du Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak espezialitate jakin batzuetatik kanpo utzi duelako.

Idazkian, EJKren balioen, printzipioen edo jokabideen balizko ez-betetzeak jasotzen dira, eta, zehazki, zintzotasunari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari lotutako jokabideak eta portaerak aipatzen dira, bai eta gardentasunari eta gobernu irekiari lotutako jokabideak eta portaerak ere.

Etika Publikorako Batzordeari eskatu dio *«que corrobore si efectivamente, en el grupo autodenominado Grado de Ingeniería forman parte titulaciones que no habilitan a profesiones reguladas, y por lo tanto que no tengan atribuciones de los Ingenieros...»*.

Eta honela dio: *«perjudicado por el proceder del Departamento de Gestión de Personal de Educación»*.

Salaketa aztertu, eta EPBk aukera izan zuen salaketaren erreferentzia-datetan zalantzan jarritako jokabidea zuen goi-karguduna identifikatzeko. Ondorioz, alegazio-izapidea eman zitzaion.

EPBren Erabakian adierazi zen, aurreko erabakietan adierazi izan den bezala, EPBk ez duela botere mugagaberik etikaren eremuan eragin zuzeneko edo zeharkakoa duen giza bizitzaren edozein alderdiri buruz erabakitzeke. Hain zuzen, EPBren zeregina honakoa da: ebatzea EAEko administrazio orokorreko sektore publikoko kargu publikodunak EJKn finkatutako jokabidera egokitzeari buruz egiten diren kontsulta eta salaketak.

Erabakiak gaineratzen du EPBren eginkizuna ez dela jarduera administratiboaren legezkotasunari edo goi kargudunen jardunaren zuzentasun juridikoari buruzko iritzia ematea. Legezkoatasuna kargu publikoen jokabide etikotik at geratzen ez den arren, batzordeak ezin du izan karguek administrazioan zer egiten duten aztertzeke organo; izan ere, administrazio- eta jurisdikzio-auzialdiaren pareko izaten amaituko luke batzordeak. Horregatik, Etika Publikorako Batzordearen jardueraren ardatza izan behar da aztertzea ea EJKra borondatez batu diren kargu publikodunek eta parekatuek EJK betetzen duten edo ez.

EPBri bidalitako idazkian, interesdunak Batzordeari eskatu zion berresteko *«si efectivamente, en el grupo autodenominado Grado de Ingeniería forman parte titulaciones que no habilitan a profesiones reguladas, y por lo tanto que no tengan atribuciones de los Ingenieros...»*.

Erabakian adierazi zen kontu hori Etika Publikorako Batzordearen esparru funtzionaletik kanpo geratzen dela argi eta garbi, eta, hortaz, gai horri dagokionez, salaketa ezetsi egin zen.

Eskaerari dagokionez, salatzailea kaltetuta sentitzen zen Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren jokabidearen ondorioz, eta Etika Publikorako Batzordearen esku uzten zuen *«que valore si se ha incurrido en un procedimiento obstruccionista y de aplicación de criterios arbitrarios, fruto deliberado o no de la falta de transparencia» eta «acorde a las conclusiones que pueda llegar, que proceda de la mejor manera posible, que intente reparar el posible perjuicio sufrido y que exija al Director de Gestión de Personal, acciones para que no vuelva a ocurrir ninguna situación parecida».*

Zuzendariak Hezkuntza Sailean aipatutako erantzukizuna ez bazuen ere, Jaurlaritzako kargu publikodun izaten jarraitzen zuen, eta, beraz, EJKren xedapenak aplikatzen zitzaizkion, beste erantzukizun-eremu bat izan arren.

Alegazio-izapidea eman zitzaion salatzailearen espedientea izapidetzeaz arduratu zen kargu publikodunari, eta salaketarekin batera zetorren dokumentazioan ikusi ahal izan zen salatzaileak gai horri buruzko espedientean egindako errekurtsio eta eskaera formal guztiek izan zutela erantzuna, eta, era berean, batzordeak ez zuen ikusi izapide jakin batzuk ezkutatu izanaren inolako arrastorik.

Horregatik guztiagatik, EPBk erabaki zuen aurkeztutako salaketa ez onartzea eta hura ezestea, orduan Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendaria zenari dagokionez; izan ere, ez zen aurkitu EJK urratu izanaren zantzu arrazionalik.

d) Kontsulta, txertaketa-protokoloen balizko ez-betetzen berri izan osteko jardunbideei buruzkoa.

Kontsulta bat aurkeztu da pandemia-garaian txertaketa-protokoloen balizko ez-betetzen berri izan osteko jardunbideei buruz.

EPBri bidalitako idazkian, interesdunak eskatu zuen aztertzeke ea Batzordeak Etika eta Jokabide Kodea urratu zuen, txertaketa-protokoloetan balizko ez-betetzeak gertatu zirela jakin baitzuen.

Zehazki, adierazi zuen jakin zuela Osakidetzako ospitale bateko zuzendari gerenteak COVID-19aren aurkako txertoa jarri zuela, eta ez zuela bete zentro horretan egindako txertaketak erregistratzeko betebeharra, zenbait kasutan.

Egoera horren aurrean, gertatutakoaren erantzukizuna bere gain hartzeko eskatu zion zuzendari gerenteari; hala egin ez zuela ikusita, kargutik kendu zuten konfiantza galtzeagatik.

Egun berean, beste ospitale publiko bateko zuzendari gerenteak jakinarazi zuen «*ospitale osoari*» txertoa jarri zitzaiola, eta horrek ezarritako txerto-protokoloak urratzea zekarren.

Ospitaleko zuzendari nagusiak berak txertoa jaso zuela egiaztatu ondoren, protokoloan ezarritako aurreikuspenetatik kanpo txertoa hartu izanagatik ardurak bere gain hartzera behartu zuten; ospitaleko zuzendariak uko-egitea aurkeztu zuen, eta onartu egin zuten.

Interesdunak EPBri kontsultatu zion ea jarduketa horiek, balizko txertaketa irregularren berri izan ondoren, Eusko Jaurlaritzako kargudunen Etika eta Jokabide Kodea urratzen zuten.

Batzordeak ulertu zuen gutxienez bi elementu objektibo hartu behar zirela kontuan kontsultagileak arduraz jokatu zuen ala ez baloratu eta zehazterakoan.

Alde batetik, neurriak hartzeko azkartasuna, bere ustez arduradun publiko batean desegokiak ziren egitate batzuen berri izan eta ordu gutxira.

Bestalde, gertakari horietan inplikaturako pertsonetik hartutako neurrien irismena eta inpaktua, erantzukizunak berehala uzteko eskatuz. Kasu batean dimisioa izan zen, eta bestean kargutik kentzea.

Bi elementu horiek ikusita, Batzordeak ez zuen zalantzan jarri interesdunak erantzukizun-printzipioa bete zuenik gertakariak aztertu eta baloratzeko orduan, ez eta erabakiak hartzerakoan ere; beraz, ulertu zuen interesdunak ez zituela urratu EJKn jasotako balio, printzipio eta portaerei buruzko manuak COVID-19aren aurkako txertaketa-protokoloak ez zirela bete jakin osteko jardunbideetan.

e) Elkarte batek bi arduradun publikoren aurka jarritako salaketa.

Elkarte batek EPBri «*hechos muy graves*» jakinarazi dizkio, «*que estamos sufriendo por parte de cargos públicos o altos funcionarios del (...)*», eta horietan ustez parte hartu dutela (...) zuzendari gerenteak eta zuzendari teknikoak.

EPBri igorritako idazkian, zenbait jokabide aipatzen diren, legez kanpokotzat jo zitezkeenak. Honela zioen: «*nuestro único interés es restablecer el compromiso de colaboración entre nuestra Asociación y el (...), en los términos que debe entenderse dicha colaboración, pero respetando nuestra autonomía, sin tener que sufrir lo que estamos sufriendo*».

Aurkeztutako salaketan, bi pertsona aipatzen ziren, zeinak kide ziren erakundearen organigraman erantzukizun desberdinak zituzten; bietako bat EJKren aplikazio-eremutik kanpo geratzen zen, ez baitzen hari atxikitako karguduna; beraz, Batzordeak ez zuen erabakitzeko eskumenik.

Beste behin gogorarazi behar izan zen EJKren aginduek haren aplikazio-eremuan jasota dauden (testuaren bigarren artikuluan) kargudunei soilik eragiten dietela, kargudunek bertan adierazitako prozeduraren arabera atxikimendua sinatu ondoren. Baina hori ez zen salaketan aipaturako pertsonetako baten kasua; izan ere, erantzukizun-kargu bat izan arren, ez zen EJKren aplikazio-eremuan sartzeko araudian aurreikusitako mailakoa, eta, beraz, ez zen onartu pertsona horren aurka aurkeztutako salaketa.

Salaketa jaso ondoren, EJKren mende zegoen interesdunari jakinarazi zitzaion, EPBri bidal diezazkion egokitzat jotako adierazpenak eta alegazioak.

Interesdunak aurkeztutako salaketan langileen legez kanpoko lagapena ere aipatzen zen, baita laneko jazarpen moralak ere.

EPBk zehaztu zuen gai juridikoak direla bi horiek, eta, horiek ebazteari dagokionez, antolamendu juridikoan zehazten direla aurkaratzeko bide administratiboak eta judizialak, eta zorrotasunez esleitzen zaiela horretarako eskumena organo jakin batzuei. Batzordeak ezin du horien lana eragotzi, eta ez du egin behar.

EPBren gehiegikeria ekarriko luke langileen legez kanpoko lagapenik edo laneko jazarpen moralik dagoen baloratzeak, ez baitagokio berari hori zehaztea.

Salaketan aipatutako beste pertsonari dagokionez, EJKren eraginpean zegoen, baina EPBk ez zuen hauteman EJKn jasotako balioak, printzipioak eta jarraibideak urratu izanaren zantzurik haren jokabidean, igorritako eta aztertutako dokumentazioaren eta informazioaren arabera.

Aitzitik, EPBk, jasotako dokumentazioaren bidez, ikusi zuen harreman-arazo handia zegoela elkartearen eta salaketan aipatzen den pertsonak zerbitzu ematen zuen erakundearen artean, eta horrek ondorioak izan zitzakeela gure erkidegoan kalitate- eta segurtasun-baldintzetan odol-emateen autosufizientzia lortzeko helburuan, eta, gainera, eragina izan zezakeela Bizkaian egiten zirenen kopuruan.

Hori dela eta, EPBk bi alderdiei eskatu behar izan zien egoera bideratzen ahalegintzeko, elkarlanean eta elkar ulertuz, zintzo eta elkar errespetatuz, interes publikoa lortzea errazteko eta ahalbidetzeko: beharrianetarako odol-emate nahikoak bermatzea. Izan ere, aintzat hartu behar da bidalitako dokumentazioan irregulartasun batzuk zerrendatzen direla, alde batera utzita (...) eta (...) elkartearen artean egon daitezkeen harreman pertsonalak, zeinak, baieztatuz gero, larriak izan bailitezke, eta ondorio garrantzitsuak izan. Horregatik, beharrezkotzat jo zen Erabakia salaketan

aipatutako pertsonen arduradun hierarkikoei helaraztea, behar ziren neurriak har zitzaten.

f) Salaketa, Jaurlaritzako goi-kargudun baten jardunbideei buruz.

EJKren mendeko goi-kargudun baten aurka aurkeztutako salaketa aztertu zuen kasu honetan EPBk. Salaketa ekainaren 26ko 1/2014 Legean (Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzekoa) araututako abstentzio- eta inhibizio-betebeharrari buruzkoa zen.

Kontsultak bi gai planteatzen zituen goi-kargudunari buruz. Batetik, ingeniari-entrepresa bateko ingurumen-saileko arduraduna izanik iraganean, entrepresa horri buruzko ingurumen-txostenak egin zituela (...)-(e)ko zuzendaria zela; eta, bestetik, entrepresa horren aldeko kontratuen adjudikazioan parte hartu zuela (...)-(e)ko Administrazio Kontseiluko idazkari eta (...)-(e)ko zuzendari zela.

Etika Publikoko Batzordeak kontsulta jaso ondoren, interesdunari helarazi zitzaion, aurkeztutako kontsultan aipatzen ziren egitatei eta gogoetei buruz egoki iritzitako adierazpenak eta alegazioak aurkeztu zitzaizkien.

Kontsultan bi gai desberdin planteatu ziren, eta EPBk bereizita aztertu zituen.

Gaietako bat sozietate publiko bateko administrazio kontseiluan egindako idazkari-lana zen, baina kargu hori utzi zuela 3 urte baino gehiago igaro ziren.

EPBk berriro gogorarazi zuen EJK-k interes-gatazkekin lotutako zenbait jokabide, jarrera eta portaera debekatzen dituela, edo ekiditeko agintzen duela, baina gai horretan indarrean dagoen araudia –eta, zehazki, kargua bete aurretik edo ondoren jarduera jakin batzuetan aritzeari buruzkoa– jasota dagoela Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunen eta parekatuen jarduera bateraezinak berariaz arautzen dituen arau juridikoan. Arau horretan diziplina- eta zehapen-araubidea ezartzen da, eta, legezkotasun-printzipioari jarraituz, lege-lerruneko testu baten bidez araututa dago, zehazki, ekainaren 26ko 1/2014 Legean (zeinak Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen).

Horregatik guztiagatik, ondorioztatzen dut ez zegokiola EPBri zehaztea interesdunak ingurumen-txostenak egin izanak edo kontratu bat adjudikatu izanak ((...)-(e)ko zuzendari eta (...)-(e)ko Administrazio Kontseiluko idazkari zenean) urratu egiten zuen ala ez goi-kargudun eta zuzendari publikoen bateraezintasunen esparruan indarrean zegoen ordenamendu juridikoa.

EPBri bidalitako kontsultan bertan aitortzen zen, eta hala adierazi zuen Batzordeari zuzendu zitzaion pertsonak bere idazkian, kontratuaren adjudikazioa egin zela enpresan lan egiteari utzi zionetik bi urte baino gehiago igaro ondoren, eta, beraz, ez zela legea urratu.

EPB honi helarazitako kontsultan planteatzen den beste gaiari dagokionez, hau da, enpresa batek egindako 12 planen eta azterlanen ingurumen-ebaluazioen araberako txostenak egiteari buruzkoa, enpresa horrekiko lan-lotura amaitu zuenetik bi urte igaro gabe; EPBk ondorioztatu zuen EJKren *betetzea eskasa* izan zela ingurumen-txostenei zegokionez, EPB honi kontsulta egin ez zitzaiolako edo ez zirelako ardura eskualdatu hierarkian gorago zegoenari edo, hala bazegokion, interesdunaren egoeran ez zegoen saileko edo erakundeko beste edozein kargu publikoduni.

EJKren 11.3.e) apartatuan ezarri bezala EPB honi kontsulta egiteko betebeharraren «betetzea eskasa» izan zenez, EPBk proposatu zuen 3.2 apartatuan ezarritakoarekin bat, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian horren berri emateko ohar bat argitaratzea.

e) Arduradun batek izendapen-proposamen bat egiteari buruzko aurretiazko kontsulta.

Kasu honetan, kontsulta bat egiten du Gobernu Kontseiluari goi-kargudun bat proposatzeko arduradunak, proposamena egin aurretik, bateraezintasunen bat egon ote daitekeen jakiteko.

Beste behin ere, agerikoa da EJKren mendeko kargudunak EJKren zehaztapenak betetzeaz arduratzen direla, eta kontsulta egin dute, erabakiren bat hartu edo jardun aurretik.

Goi-kargudunaren izendapena proposatzeko arduradunak EPBri galdetu zion ea eragozpenik zegoen proposamen hori egiteko; izan ere, kargu publikodun izendatzeko proposatu behar zenaren emazteak enpresa batean lan egiten zuen, enpresa horretako administratzaile bakarra izanik, eta enpresa horri, lizitazio publiko batean, kontratu bat adjudikatu zitzaion (2023ko Tourraren irteera EAEn dela eta); beraz, goi-kargudunaren jardueran mugarik egon behar ote zen kontsultatu zuen.

EPBk ebatzi zuen ez zegoela inolako eragozpenik izendapen hori proposatzeko, baina beste behin ere gogorarazi zuen EJKren 11. apartatua, kargu publikodunen eta parekatuen zintzotasunari, interes subjektiborik ezari eta haien interes-gatazkak eragozteari buruzko jokabideak eta portaerak zehazten dituenak, zeinak jokabideak bi bloketan sailkatzen dituen: interes-gatazkak sor ditzaketenak, eta opariei eta izan daitezkeen onurei buruzkoak.

Apartatu horretan honela definitzen da interes-gatazka: *«kargu publikodunek eta parekatuek erabakietan esku hartzen dutenean, baldin eta erabaki horiei lotutako kontuen atzean, postu publikoak dituen interesekin batera, beste hainbat interes badaude: norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin*

partekatzen dituzten interesak». Eta interes publikoen eta interesdunaren interesek talka egiten duten edo egin dezaketen egoeretan kargu publikodunek eta parekatuek zer jokabide izan behar duten ezartzen da – betiere legeak ezar dezakeena alde batera utzi gabe, jakina–.

Gehienak prebentzio- edo kautela-neurriak dira, interes-gatazkak saihestea helburu dutenak, noski, baina baita goi-kargudunen eta parekatuen jardunbidean interes-gatazka pizteko aukeraren inguruan sor litezkeen zalantzak edo susmoak errotik erauztea ere.

Horiek irakurrita, erraz ondoriozta daiteke EJK-k finkatutako zintzotasun eta interes subjektiborik ezaren estandarrari dagokionez sor litezkeen desbideratzeak saihestu ez ezik, desbideratzeen balizko existentziaren inguruko zalantza oro ere uxatu nahi dutela.

Horregatik guztiagatik, EPBk ondorioztatu zuen ez zela Etika eta Jokabide Kodea urratzen goi-kargudunaren izendapena proposatzean, baina adierazi zuen goi-karguduna izendatuz gero, emazteak lan egiten zuen enpresaren inguruko edozein kontsultari edo erabakiri uko egin beharko liokeela, eta ardura hierarkian gorago dagoenari edo, hala badagokio, inguruabar horrek eragiten ez dion saileko edo erakundeko beste edozein kargu publikoduni eskualdatu beharko liokeela edo EPBri kontsulta egin beharko liokeela.

f) Udal bateko oposizioko taldeak EPBri aurkeztutako salaketa.

Bizkaiko udal bateko oposizioko talde batek salaketa jarri du, oposizioko zinegotzien eta udalerriko herritar batzuen eskubideak urratu direla uste duelako.

Salaketaren ebazpenean, EPBren Erabakiak berriro gogorarazi zuen EJKren aplikazio-eremu subjektiboa.

Hala, adierazi zuen EJK-k kargu publikodunen gainean indar loteslea duela, kasu bakoitzean legez ezarritako prozeduraren arabera izendatzen direnetik eta hartarako atxikimendua formalizatzen dutenetik aurrera. Horrela ezartzen du: *«Kodeari banaka atxikitzeak esan nahi du kargu publikodunek beren gain hartzen dutela betebeharrak eta obligazio hau: beren bizitza publiko zein pribatuan, Kodean adierazitako balio, printzipio eta jokabideen edukiarekin, asmoarekin eta espirituarekin bat datozen jokabide eta portaerak izango dituztela».*

Ondorioz, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak Arautzen dituen Legeak 4. artikuluan ezartzen duen katalogoan sartuta dauden kargu publikoak soilik behartzen ditu EJK-k –horrenbestez, baztertu egiten dira katalogo horretan ez datozenak–, eta bakarrik izendapena formalizatzen denetik kargu-uzteak ondorioak dituen egunera arte.

Ondorioz, EPBk erabaki zuen aurkeztutako salaketa ez onartzea, arrazoi honengatik: salaketa udaletxe bateko arduradun publiko batzuen kontra jarri da, baina pertsona horiek ez dira EJKren hartzaileen kolektiboan

sartzen –kolektibo horretara mugatzen da EPB honen jarduketa-eremu subjektiboa–, eta ez zeuden kargu publikoen katalogo eguneratuan, zeina martxoaren 29ko 38/2022 Dekretuz onartu baitzen.

g) Biziguneko programan etxebizitza eskuragarri jartzeari buruzko aurretiatzko kontsulta.

Kontsulta horrek agerian uzten du, beste behin, memoria honetan zehar adierazi duguna kargu publikodunek Etika eta Jokabide Kodearen aginduak betetzeko duten kezka buruz.

Kontsulta horretan, EPBri eskatu zitzaion iritzia eman zezan kargu publikodun batek bere etxebizitza Bizigune Etxebizitza Hutsen Programan sartzeagatik egon zitekeen bateraezintasun edo interes-gatazkari buruz, kontuan hartuta programa hori kudeatzen duen sozietate publikoko administrazio kontseiluko kidea zela, baita sozietate publiko horren gaineko Saileko kargu publikoduna ere.

Bizigune Etxebizitza Hutsen Programaren helburua da hutsik dauden etxebizitzak erakartzea, alokairu babestuaren bidez merkaturatzeko. Xedea etxebizitza hutsei erabilera soziala ematea da, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emanda dauden pertsonen etxebizitza duina arrazoizko prezioetan eskuratzeko aukera erraztuz, eta, horrela, zailtasun handienak dituzten pertsonen etxebizitza eskuratzeko erraztasunak emanez.

EPBren iritziz, etxebizitza Bizigune Etxebizitza Hutsen Programan sartzeak ez zuen EJK urratzen, eta, aitzitik, bat zetorren legegintzaldiko Gobernu Programan ezarritako helburuekin.

Hala ere, EJKren 6. apartatuak, kargu publikodunen eta parekatuen integritateari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari buruzko jokabideak eta portaerak jasotzen dituenak, honakoa xedatzen du: kargu publikodunek ez dute jardungo pertsona baten edo erakunde publiko zein pribatu baten alde, eta ez dute egingo pertsona edo erakunde horien alde jardun dutela pentsatzera eraman dezakeen susmorik sor dezakeen ezer, eta inoiz ez dituzte erabiliko ez erakundean duten postua, ez karguaren ondoriozko pribilegioak beren buruarentzat abantailak lortzeko edo edozein pertsona edo erakunderentzat abantailak edo desabantailak lortzeko (zuzenean edo zeharka), non eta indarreko araudi-esparruan babestuta ez dagoen hori. Izan ere, Bizigune-Etxebizitza Hutsen Programarekin zerikusia duen edozein esku-hartzeri, aholkularitzakoa edo erabakitzailea izan, uko egin beharko lioke kontsultagileak, eta ardura hierarkian gorago dagoenari edo, hala badagokio, inguruabar horrek eragiten ez dion saileko edo erakundeko beste edozein kargu publikoduni eskualdatu beharko lioke, edo EPBri kontsulta egin.

ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

EPBk oso balorazio positiboa egiten du memoria honetako bi urteez, eta hartutako erabaki guztiak aho batez hartu direla nabarmentzen du.

EPBren funtzionamenduari dagokionez, azpimarratu behar da lan handia egin dela, eta batzordekideak prest egon direla bidalitako gaiak aztertzeke. Batzordekide batzuk fisikoki urrun daudenez, bilera guztiak telematikoak izan dira. Bilera horietan, aukera izan da iritziak kontrastatzeko, ekarpenak egiteko, jasotako salaketekin edo kontsultekin zerikusia duten gaiak aztertzeke, eta horrez gain, Batzordearen funtzionamenduari, duen garrantziari eta haren jardueraren eta hartutako erabakien ezagutza hobetzeko moduari buruzko gai orokorragoak ere aztertu dira.

Ondorioen atal honetan, azpimarratu nahi dugu kargu publikodunek konpromiso handia dutela Etika eta Jokabide Kodearekin. Horren erakusgarri da kontsulta kopuru handia jasotzen dela salaketekin alderatuta. Esan bezala, kontsultak EPBk aztertutako gaien % 73,33 dira.

Illo horretan, Kode Etikoa eta haren oinarri diren balioak (Integritatea, Bikaintasuna, Politika eta Kudeaketa bat etorerraraztea, Lidergoa eta Berrikuntza) betetzeari buruzko kezka hori agerian jartzen da, ez bakarrik EPBn aurkezten diren kontsulta formalen bidez, baita kontsulta informalen

bidez ere. Kontsulta horiek, askotan, Batzordeak dagoeneko adierazi dituen gaiei buruzkoak izaten dira.

EPBn kontsultak jaso diren heinean, horri esker, doktrina bat osatu ahal izan da. Doktrina hori memorietan argitaratzeaz gain, komenigarria dirudi formatu informatibo-komunikatibo berri batera eraman ahal izatea. Jarduera-gida potentzial horrek aukera emango liguke kargu publikodun guztiengana arin eta pedagogikoki iristeko, erreferentziazko mezu bat, alegia, kargudun bakoitzak zer jokabide/portaera izan beharko lukeen bere erantzukizuna betetzean agertu ohi zaizkion egoeren aurrean. Hori guztia, Kode Etikoaren edukiak hedatzeko efektutik haratago.